

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Osteguna, 2012ko otsailaren 24a. IX. urtea. 2.368. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Karrozen bolumena arazo izan da Tolosako inauterietan

Udalak jaien aurretik esan bezala, neurriak hartuko ditu hitzartutakoa bete ez dutenekin; gainontzean giro onean joan dira festak **02**

Villabona eta Zizurkil, atez ateko hondakin bilketa onartzeko bidean

Otsaila bukatu aurretik egingo dituzten osoko bilkuretan gaikako bilketaren aldeko mozioak eztabaidatuko dituzte **04**

Herrira mugimenduak elkarretaratzeak deitu ditu gaurko

Gaixo dauden presoak askatzeko eskatuko dute hileko azken ostiralean **05**

Datorren astean irekiko dute uholdeetako diru laguntzak eskatzeko epea

Kaltetuek hilabeteko epea izango dute eskaera egiteko **05**



LEREZABERIA

→ **Txakurkrosa ikusteko aukera, etzi.** 80 partaide inguru izango dira igandean, Tolosan egingo duten I. Txakurkrosean. Herriko Guhau taldeak antolatu du lasterketa, eta bi proba izango dira 11:30etik aurrera; lasterketa ofiziala eta herri mailakoa. Biak ala biak, Trianguloa plazan hasi eta bukatuko dira. **03**



Bidali zure argazkia!

Inauterietako Argazki lehiaketa



• **Saria:** Bizkaiko Ajangiz herrian dagoen **Astobieta nekazaturismoan** bi pertsonentzako gau bateko egonaldia eta gosaria.

• **Argazkiak nora bidali:** thargazkiak@hitza.info
Argazkiek gutxienez 20 zentimetrokoak eta 300 ppp-ko bereizmena izan behar dute.



Parte hartuko duten argazki guztiak ikusgai izango dira Inauterietan tolosa.hitza.info webgunean!

Oharra

HITZAK jakinarazi nahi du, inauterietako igandean, astelehenean eta asteartean egunkaria ez zela behar bezala banatu eta hori dela eta, inauterietako ale hauek tolosaldea.hitza.info webgunean daudela ikusgai.

Gaur izango da inauterietako karroza eta konpartsen sari banaketa

Udalak, lehen balorazioan, inauteriak «giro onean eta normaltasun osoz» joan direla esan du

I. Urkizu

Gaur banatuko ditu Tolosako Udalak, pasa den asteartean amaitu ziren inauterietako karroza eta konpartsen lehiaketako sariak. Ekitaldia 18:30ean hasiko dela azaldu du udalak, inauterien inguruan egin duen lehen balorazioan.

Sei festa egunak «giro onean eta normaltasun osoz» ospatu direla nabarmendu dute, eta beraz, balorazioa positiboa dela: «Lehen balorazioa da, eta datu eta informazio zehatz guztiak oraindik eskura ez dauden arren, inauterietan jai giroa, umorea eta festa bermatuta egon dira Tolosan, herriarrentzat zein kanpotik etorri diren guztientzat». Jendeak ondo erantzun duela diote, eta udalak eskertu egin nahi du hori: «Inauteriak herriko jaiak dira, eta hala izan behar dute».

Inauterietan udaleko zerbitzu guztian ondo koordinatu direla azaldu dute, bai aparkalekuei, trafikoari, garbiketari nahiz garaio publikoari dagokienez, eta jendeak «errespetuz eta jatoritasunez» jokatu duela ere azpimarratu du udalak.

Era berean, eguerdian eta gauean zerbitzua eskaini duen Zerkausiko jantokiak, nahiz txosnaguneak eta Bilgune Feministaren txokoak, balorazio positiboa merezi dutela diote. Bilgune Feministak lehen aldiz jarri du aurrenekoa, eta salaketarik ez dela egon azaldu dute arduradunek; sentsibilizazio gune moduan ondo funtzionatu duela nabarmendu dute.

Zezen plazako neurriak ondo
Aurten udalak neurri bereziak hartu behar izan ditu zezen festarako, eta txarangez gain, ezin izan



Eduardo Chocano, aurtengo Inauterizale Kuttuna, Ostegun Gizeneko txupinazioan. I. TERRADILLOS

zuten inauterizaleek hondarretara sartu.

Neurria eraginkorra izan dela azpimarratu du Tolosako Udalak, ez baita zezen plazan arazorik izan. Udala pozik dago: «Ez da arriskuan jarri ez parte hartzaileen, ez ikusleen segurtasuna, ezta ikuskizunarena ere». Horrela berak, datorren urteetarako oinarri izango da aurtengo neurria.

Karrozen bolumena arazo

Karroza eta konpartsek jartzen duten musikaren bolumena ere arazo izan da aurtengo inauterietan. Udalak azaldu duenez, zenbait karroza eta konpartsek ez dituzte jarritako neurriak errespetatu, eta udalak honen aurrean neurriak hartuko dituela argi utzi du balorazioan, aurrez ere azaldu zuen moduan.

Gauzak horrela, soinuaren bolumena errespetatu ez duten taldeak karroza eta konpartsen lehiaketatik kanpo geratuko dira, eta ondorioz, ez dituzte gainon-

tzeko taldeek izango dituzten eskubide berak izango: «Inauteriak herritar guztientzat izan behar dute festa, eta ez da zilegi batzuentzat, arazo edo buruhauste izatea. Jatortasunez eta errespetuz jokatu behar dugu guztiok».

Honen harira, aipatzekoa da, gaur, 18:30ean, karroza eta konpartsa lehiaketako sari banaketa izango dela udaletxeko batzar aretoan. Gainera, lehiaketan parte hartu duten karroza eta konpartsa guztiak, martxoaren 2ra bitarte izango dute dieten eskakera egiteko epea. Datu orria eta argazkia kultur etxean entregatu beharko dituzte; www.tolosakoudala.net webgunean ere egin ahal izango da bestela.

Iaz baino zabor gehiago

Inauterietako sei egunetan zehar, 46 langile aritu dira Tolosako kaleak garbitzen. Arduradunek azaldu dutenez, 2012an zabor kopurua igo egin da, eta 2010 eta 2011ko datuak begiratu, zabor gehiago bildu dute amaitu berri diren inauterietan.

Egunero 06:00etatik 12:00etara aritu dira garbitzaileak lanean, eta astearte goizean, 05:00etan hasi ziren. Hain zuzen ere, asteartean zenbait arazo izan zituzten, Trianguloan mangerarekin garbitutakoa izoztu egin zelako; asteazkenean, horregatik, garbiketa lehorrean egin zuten.

Guztira 132,5 metro kubiko zabor bildu dituzte Tolosan, eta 656.500 ur litro erabili dituzte; desinfectante usaindunari dagokionez, berriz, 700 litro erabili dituzte garbitzaileek.

Balorazio batzarra

Lehen balorazioa egin duten arren, udalak informazio zehatz guztia bildu nahi du. Horrela beraz, aurtengo inauterien balorazio osoa egiteko batzarra deitu du udalak, datorren martxoaren 6an, 19:00etan, kultur etxean.

Bestalde, Astelenita gauean Guardia Zibilak zerbitzuan zegoen suhiltzailea lanean axilolatu izana salatu nahi izan du udalak, «zerbitzua murriztua» geratu baitzen gaurik jendetsuenean.

Bizikletak konpontzeko tailerra antolatu du Gaingitzen elkarteak

Ikastaroa bihar goizean izango da, kultur etxean, eta Iker Amondarain izango da irakaslea

I. Urkizu

Tolosaldeko eta Goierriko pertsona gorren Gaingitzen elkarteak bizikletak konpontzen ikasteko tailerra antolatu du biharko.

Iker Amondarain izango da ikastaroa gidatuko duena, eta jarduera gorrei nahiz entzuten dute-nei zuzendua dago; hamabost lagunek joan ahal izango dute gehienez ere. 10:00etatik 13:00etara izango da tailerra, kultur etxean, eta saioa dohakoa izango da. Ikastarora joan nahi duen edonork gaingitzen-g@hotmail.com helbidera idatzi beharko du, eta 666 63 71 58 telefonora deitu.

Saharar errepublikaren 36. urteurrena gogora ekarriko dute Tolosan

I. Urkizu

Datorren astelehenean Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoaren aldarrikapenaren 36. urtemuga izango da. Hori dela eta, udaletxeko balkoian Saharako bandera jarriko dute elkartasuna adierazteko, eta autodeterminazio eskubidea aldarrikatzeko.

Bide beretik, Tolosaldea Sahararekin elkarrekin elkarretaraztea egingo du Trianguloan, 19:30ean, eta astearteko osoko bilkuran, berriz, mozioa aurkeztuko du, udalbatzari Saharako gaztazka konpontzeko konpromisoa eskatuz.

• tolosa@hitza.info

 tolosaldea.hitza.info

www.tolosa.hitza.info helbidean ikus daitezkeen azken bideoak:

- **Tolosako inauterietan, Astelenitan, aisialdi taldeetako gaztetxoak dantzan.**
- **Tolosako inauterietan, Astearitako pattar zezena.**
- **Tolosako inauterietan, Astearitako goizeko moztaroen irudiak.**

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Autoa.** Ford Fiesta autoa dago salgai. Autoa oso egoera onean dago, eta prezio onean eskaintzen dugu gainera. Autoa erosuteko interesa dutenek, dei dezatela jarraian ageri den telefono zenbakira: 688 681257.

GALDUTAKOAK

■ **Argazki kamera.** Astelenitan eguerdi aldera, Zubi berri inguruan txarangarekin saltoka argi ginela, Canon IXUS 105 argazki kamera galdu genuen. Norbaitek topatuz gero honako telefonora dei dezake: 688671656 (Luis)



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

80 partaidetik gora espero dituzte igandeko Tolosako I. Txakurkrosean

Guhau Txakurkros Taldeak antolatzen du; bi proba izango dira, nagusia eta herri lasterketa

Imanol Garcia Tolosa

Tolosako I. Txakurkrosa antolatu du igandeko Guhau Txakurkros Taldeak. Orain gutxi sortu da taldea eta igandeko proba antolatzen duen lehenengoa izango da. Bi proba egingo dituzte. Bateatik, nagusia, hau da, Gipuzkoako Txakurkros Ligarako baliozgarria izango dena, eta bestea, herri lasterketa. Guztira 80 partaide inguru espero dituzte bi probetan, 60 bat ofizialean eta beste 20 inguru



Guhau Txakurkros Taldeko zenbait partaide, denboraldi honetan egindako beste proba batean. HITZA

herri lasterketan. Bi probak 11:30ean hasiko dira, Trianguloa plazaletan.

Guhau Txakurkros Taldeko Ainara Gozategik probaren ezauzgarriak zehaztu ditu: «Txakurra eta korrikalaria loturik joan be-

har dira, eta beti txakurra joan behar da tiraka. Lerekin egiten den lasterketatik eratorritako proba da». Lasterketa nagusia 10 kilometro inguru izango ditu eta herri lasterketak 4,5 kilometro. Sari banaketaren aurretik, 13:00ak al-

dera, haurrentzako proba bereziki antolatu dute, 90 metrokoa. Ondoren, paella jatea izango da. Izena emateko www.herrikrosa.com helbidean egin behar da. Egunean bertan, probak hasi baino lehen ere izena eman daiteke.

IkaSarearen egoitzetako bat Tolosan egongo da

I. Garcia

IkaSareak, Gipuzkoako prestakuntza bitartekoen sareak lehenengo urratsak eman ditu Gipuzkoako hainbat eskualderen artean elkarlanean aritzeko asmoarekin. Lan proaktibo bat garatzen datza, pertsona guztiei prestakuntza helarazteko helburuarekin. IkaSarearen egoitzetako bat Tolosan egongo da, Ikastn zerbitzuan.

Egoitzetan dauden teknikoek honako behar hauei erantzuten diete: ikaskuntzari, ikasketen orientabideari, tituluen eta ziurtagiri profesionalen homologaziorako informazioari, gaitasunen onartzeari, ikastaro arautu nahiz ez arautuei eta prestakuntza-ibilbidean laguntzeari. Bestalde, IkaSareak hainbat gaien in-

guruko prestakuntza ikastaroak ere antolatzen ditu. Tolosaldean, informazio eta teknologia berriak (sare sozialak, telefono adimentsuak, eta abar), nazioarteko politika, ibilgailuak modu eraginkorren gidatzeko ikastaroak, eta abar antolatzen dituzte.

Hain justu, datorren astean bi ikastaro hasiko dira. Horietako batean, *Mugikorrek eta Smartphone-ak: industriara gerturatzea, joerak eta marketing-a*, oraindik izena eman daiteke. Asteartean hasiko da, 19:00etan, Topic-en. Ikastn-ek diruz lagundua da ikastaroa eta kuota 25 eurokoa da.

Beste ikastaroa, *Elikagaiak manipulatzeko txartela. Elikagaien segurtasuna eta higiena*, astelehenean hasiko da, 16:30ean, eta Hobetuz-ek diruz lagundua izango da.

→ Laburrak

Mendizabal, Kutxa Sari Nagusiko finalerdietan

ANOETA › Igandean, Urretxuko Ederrena pilotalekuan jokatu dira Emakumeen Gomazko Paletako Kutxa Sari Nagusiko finalerdietan, 11:00etan hasita. Finalerdietako batean Maider Mendizabal anoetarrak jokatu du, Arrietarekin batera, Muneta eta Bordagarayren aurka.

Sarrerak Pirritx, Porrotx eta Marimotots ikusteko

TOLOSA › Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuta, Pirritx, Porrotx eta Marimotots paila-zoek Tolosako Leidor aretoan izango dira martxoaren 31n. Sarrerak salgai izango dira astelehenean aurrera, Galtzaundiren egoitzan.

Alpino Uzturreren mendi irteera igandean

TOLOSA › Alpino Uzturre Elkarrekin igandeko mendi irteera antolatu du. Txangoa Araotzetik hasi eta Urkulun bukatuko da. Iraupena 5 ordu izango dira. Bazkideek 11 euro ordaindu beharko dute autobusa, eta ez bazkideek 13 euro. Izena emateko, 943 65 27 89 zenbakian edo alpinouzturre@hotmail.com helbidean.

Goi Mailako Institutuaren ikastaroak, astelehenean

TOLOSA › Tolosaldea Goi Mailako Lanbide Heziketa Institutuaren Aplikazio Informatikoak testuak tratatzeko (*Word*) eta Fagor CNC fresatzeko makinarren prestaketa eta programazioa ikastaroak astelehenean hasiko dira. Langileentzat zuzenduta daude eta doan dira. Izen ematea, ikastetxean, 943 65 11 47 zenbakian.

↓ Kirola Tolosan

LARUNBATA

SASKIBALOIJA

09:00. Usabalgo goiko kantxan: infantil mutilak, Take Bedaio-Easo; infantil neskak, Take Montesku-BKL.
10:30. Usabalgo goiko kantxan: Infantil mutilak, Take Ointxe; kadete mutilak, Triki Take-Easo.
12:00. Usabalgo goiko kantxan: kadete mutilak, Take Tovar-ISB.
16:00. Usabalgo goiko kantxan: junior, Tosola-Aloña Mendi.
16:00. Usabalgo beheko kantxan: Take Orbel, Liceo Santo Tomas.
18:00. Usabalgo goiko kantxa: nazional mailan, Bide Bide-ISB.

ARETOFUTBOLA

10:00. Usabalgo beheko kantxa: kadeteak, Laskorain-Anoeta.

ESKUBALOIJA

12:00. Usabalgo beheko kantxan: infantilak, Tolosa-Zarautz.

FUTBOLA

09:30. Infantil txiki mutilak: Tolosa-Mundarro.
11:00. Kadete neskak: Tolosa-Lazkao.
12:30. Infantil lehen maila: Tolosa-Danena.
15:30. Jun. emakumeak: Tolosa-Lazkao.
16:30. Berazubi. Jubenilak maila nazionala: Tolosa-Retuerto.
17:30. Jun. ohorezkoak mutilak: Tolosa-Lagun Onak.

IGERIKETA

15:00-20:00. Igeriketa egokitua.

IGANDEA

ESKUBALOIJA

10:30. Usabalgo goiko kantxan: alebinak, Tolosa-Zarautz.
12:00. Usabalgo goiko kantxan: kadeteak, Tolosa-Ereintza.

FUTBOLA

09:35. Futbol eskolen artekoa: Tolosa-Urola.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

Tolosaldeko bederatzi herrik atez atekoaren alde egingo dute

Otsaileen Villabonan eta Zizurkilen emango dute pauso; atzetik Anoeta eta Irura herriek erabakiko dute

Eneritz Maiz

Tolosaldeko bederatzi herrik atez atekoaren alde egingo dute datozen aste eta hilabeteetan. Villabona, Zizurkil, Anoeta, Irura, Asteasu, Alegia, Berastegi, Ibarra eta Tolosa herriek 2013. urte hasierarako, hondakinak atez ate biltzeko sistema ezarriko dute.

Atez atekoa ezartzearen erabakia osoko bilkuretan onartuko dute udalek. Lehenak, eta hilabete hau bukatzerako, Villabona eta Zizurkil izango dira. Hauen atzetik, martxoan, Anoetak eta Irurak hartuko dute erabakia. Apirilean, berriz, hiru herri gehituko dira: Asteasu, Alegia eta Berastegi. Azkenik, maiatzeko osoko bilkuran, Ibarrak eta Tolosak hartuko dute hondakinak atez ate biltzeko erabakia.

Usubil, Oiarzun, Hernani eta



Ohiko edukiontzia desagertu egingo dira. E.MAIZ

Antzuolaren ostean, guztira, Gipuzkoako 34 udalek egin dute bat gaikako bilketa sistemarekin. Ekaina bitartean hartuko dituzte erabakiak, eta asteazkenean eman zuten honen berri eskualdeko hainbat alkatek, Donostian.

Hondakinaren arazoari «benetako irtenbidea» eman nahi diote, eta Gipuzkoako herriekin batera, Tolosaldea ere, «zero zabor lurralde» bilakatu nahi dute. Eskualdeko alkateek ere, «arazo larriari»

irtenbidea bilatu nahi diote, eta «lehenbailehen» hartu beharreko erabakia izan dela zehaztu zuten.

Orain artean sortutako ekimenak «antzuak» izan direlaokan daude. Sortzen diren hondakinak «zabor» bezala tratatu direla orain artean, eta «neurrigabe sortu, nahastuta bildu eta mendi zulo batera bota ditugu», azpimarratu zuten alkateek. «Kutsadura sortu, gure osasuna arriskuan ja-

↓ 2013. urterako

OSOKO BILKURETAN

- **Otsaila.** Villabona eta Zizurkil herriak.
- **Martxo.** Anoeta eta Irura herriak.
- **Apirila.** Asteasu, Alegia eta Berastegi herriak.
- **Maiatza.** Ibarra eta Tolosa herriak.

rriri eta Gipuzkoa hondatze bidean» jarri dugula adierazi zuten.

Diru laguntzak Foru Aldunditik

Tolosaldeko herriek ere, Gipuzkoako Foru Aldunditik diru laguntzak jasoko dituzte hiri hondakinak gutxitzeko.

Ingurumen sailak udalek eta mankomunitateak hondakinaren sorreren prebentzioa eta berreraipena sustatzeko egingo dituzten ekimen eta proiektuak lagunduko ditu. Gai organikoak konpostatzeari garrantzia emango diote, eta horiek izango dute lehentasuna.

o.tolosaldean@hitza.info

Ainhoa Ugalde • Tolosaldeko Zabor Mankomunitateko lehendakaria

«Arazoaz jabetzen garenean hasiko gara behar bezala erantzuten»

E. Maiz

Tolosaldeko Zabor Mankomunitateko lehendakaria da Ainhoa Ugalde, Irurako alkatea. Erronka berri bat dute esku artean, hau da, herriz herri hondakinaren gaikako bilketa sistema aldatzea. 2013. urte hasieran zenbait herritara aldatetako iritsiko dira.

Zergatik hartu da atez atekoaren alde egiteko erabakia?

Gure helburua ez da izan atez atekoa jartzea, baizik eta, hondakinak %90a bitarte birziklutzerara iristea. Horretarako gaika bildu behar dira hondakinak, eta sistemarik eraginkorrena gaurkoz, atez atekoa da. Emaitzak hor daude, eta ez soilik Usubilen, Oiarzun, Antzuolan eta Hernanin, baita Kataluniako ehunka herritan eta Europako beste hainbat lurraldetan ere. Zaborra zero izatea nahi dugunez, kontzientziario lana egiteko balioko digu sistema honek, hau da, etxez-etxe, sortzen dugun hondakinaren errealitatea agerigarro utziko du.

Hurrengo hilabeteetan, eskualdeko hainbat herri osoko bilkuretan hartuko dute erabakia. Noizko aurre-

kusten da martxan jartzea? Guztiak batera izango dira edo herri bakoitzak bere bidea egingo du?

Printzipioz eskualdean Villabona, Zizurkil, Anoeta eta Irura izango gara osoko bilkura bidez atez atekoaren aldeko hautua egingo dugunak. Martxan jartzea, aldiz, herri bakoitzaren erriemok errespetatuaz egingo da. Kontzientziario lan sakona eginez eta teknikoki behar den bezala aztertuz egingo ditugu. Beraz, ematera goazen lehen pausua besterik ez da hau, aurretik egiteko bide luzea daukagu.

Zerrenda horretan, herri txikiak ez dago. Zein asmo dago?

Herri txikietako udalek etxean konpostatzearen aldeko bultzada egingo dute. Horretarako, gure eskualdeak ezaugarri ezin hobekatu ditu. Gainera, modu naturalean, egun, hainbat herritarrek etxean egiten dute konposta. Bere onurak lehen pertsonan bizitzen dituzte. Hau da herri txikietan hedatu beharreko sistema, norberak etxean konpostatzearena.

Neza sortzen du gaiak, eta herritarrek informazioa nahiko dute. Kan-



Ainhoa Ugalde Mankomunitateko lehendakaria. E.MAIZ

painarik edo egingo da? Eta nolako erantzuna espero duzue herritarrengandik?

Normala da aldatetari beldurra edukitzea herritarrek. Behin gaia ezagutzen dugunean, eta benetan hondakinaren inguruan dagoen arazoaz jabetzen hasten garenean, guztiak hasiko gara behar den erantzuna ematen. Herritarrengan, benetan, sinesmen osoa daukagu. Arazo potolo hau guztion artean eta guztion onurarako bidean jarriko baitugu. Aldaketa hau guztion artean eman behar

dugu, horretarako guneak sortuz, parte hartuz eta ikasiaz. **Eta aurkako jarrerarik aurrekusten duzue mankomunitatean?**

Ez, besteak beste, gure helburu nagusia zaborrik ez izatea delako. Eta horren aurrean ez dut uste inor aurka egongo denik. Bestalde, mankomunitatean, elkarlanean egin behar dugu honen aldeko apustua. Eztabaidak egongo baliara ere, eztabaidari beldurrik izan gabe egin behar diogu aurre. Azken helburura iritsi arte, hau da, zero zabor izatera iritsi arte.

→ Laburrak

Ipar eski ikastaroa egingo dute larunbatean

LEITZA > Ume eta helduentzat antolatuta du Ipar eski ikastaroa Mendibil mendi taldeak. Somportera joango dira, eta hastapenerako eta hobekuntzarako izango da. Autobusa 07:00etan aterako da Oialde elkartearen paretik, eta itzulera 19:00ak aldera egingo dute.

Saralegi eta Olano etzi, finalerako lehian

LEITZA > Martxoaren 4an jokatuko dira Azpeitian Binakako Eusko Label Aizkora Txapelketako finalak. Bada, Urrezko eta gaztetoen mailako bikote finalistak erabakita badaude ere, zilarrezko mailako bi bikoteak falta dira. Etzi, larunbatean, jokatuko dituzte finalurrekoak Elgoibarren, 18:30ean hasita. Mugertza III eta Larrañaga Juan eta Jon Rodrigezen aurka bate-tik, eta Jauregi eta Zubiaga Saralegi eta Olano leitzarren aurka izango dira bi lehiak.

Gaur, Euskal Ligako finalerdietako partidak

AMEZKETA > Zazpi Iturriko pilotariak Euskal Liga jolasten ari dira, eta bi bikote finalerdietara pasa dira. Gaur jokatuko dute 20:00etan, Amezketa frontoian. Eskuz binaka gazteetan, Zazpi Iturriko Irribarria eta Tolosa, Markinako pilotarien kontra ariko dira. Eskuz binaka kadeteen mailan, berriz, Huarteko bikotearen kontra jokatuko dute Zazpi Iturriko Altuna eta Murua.

Lau pilota partida jokatuko dituzte 19:00etan hasita

ALEGIA > Alegiako pilotalekuan lau partida jokatuko dituzte gaur, 19:00etan hasiko dira partidak. Infantilen bi partida izango dira lehenak: Intxurre 2, Zio-tza 1en aurka; eta Intxurre 4 eta Bergara 2ren kontra. Eskuz binakako kadeteen bigarren mailakoan, berriz, Intxurre 1, Euskal Jolasen aurka eta bigarrenean, Intxurre 2, Aretxabale-taren kontra ariko dira.

Alurr Dantza Taldearen emanaldia, Azpeitian

IBARRA > Alurr Dantza Taldeak *Cinazezi* ikuskizuna aurkeztuko du Azpeitian, igandean. San Agustin aretoan izango da, eta 19:00etan hasiko da emanaldia. Sarrerak internet bidez, http://www.sanagustinkultur-gunea.com/agenda.php?id_unia=466&id_kat=2 helbidean eros daitezke.

Gaixo dauden euskal presoak askatzeko eskatuko dute

Hileko azken ostiralean, gaur, Herrirak elkarretaratzeak antolatu ditu eskualdeko herrietan

Asier Imaz

Herrira mugimendua gaixo dauden euskal presoek askatasuna eskatuko du gaurkoan, hau da, hileko azken ostiralean, egingo di-

ren elkarretaratzeetan. Herriratik azaldu dutenez, eskari horri azkenaldian espetxeetan eman diren «gertaera oso larriak» gehitu behar zaizkio. Eta azken asteetan atxilotutako bi euskal herritarrek ere gogoan izango dituzte.

Herrira mugimendua otsailaren hasieran eman zen ezagutzera, eta euskal preso eta iheslarien eskubideen alde lan egingo duen mugimendua da. Tolosaldeko hainbat herritan martxa dago, eta beste hainbatetan epe motze-

an hasiko da lanean. Aurkezpen gisara, Herrirak hainbat ekimen antolatuko Tolosaldean, ondorengo asteetan. Informazio gehiagorako, webgune bat ere zabaldu dute, hain zuzen ere, www.herrira.org-ean.

Bestalde, aipatu behar da, hileko azken ostiraleko elkarretaratzea orduz aldatzea erabaki dute la Asteasun. Orain arte, 20:00etan elkartzen ziren, eta hemendik aurrera, 19:00etan elkartuko direla azaldu dute.

↓ Azken ostirala

GAUR

- Aduna. 20:00etan.
- Alegia. 19:30etan.
- Amezketa. 19:30etan.
- Anoeta. 19:30etan.
- Asteasu. 19:00etan.
- Berrobi. 19:30etan.
- Berastegi. 19:30etan, plazan.
- Gaztelu. 20:30etan, herriko plazan.

- Ibarra. 19:30etan, herri sarreran.
- Ikaztegieta. 20:30etan.
- Irura. 19:30etan, plazan.
- Leaburu. 20:15etan.
- Leizta. 20:00etan.
- Lizartza. 20:00etan.
- Tolosa. 19:30etan.
- Amasa-Villabona. 20:00etan.
- Zizurkil. 20:00etan.

→ Laburrak

Filme aldaketa eta pailazoak, Gurean

VILLABONA › Gurea aretoan *Los descendientes* filma zegoen aurreikusita asteburu honetarako, baina aldaketak medio, *Los hombres que no amaban a las mujeres* filma eskainiko dute ostiralean, larunbatean eta igandeetan, ohiko ordutegietan. Bestalde, etzi, Txirri, Mirri eta Txiribiton Juniorrek *Barregin* lana estreinatuko du Gurean, 16:30etan.

'Salda badago' dokumentala, gaur

ANOETA › Udalak hitzarmen bat sinatu du Argia aldizkariarekin, eta horren bidez hilerio antolatuko dira dokumental emanaldiak euskaraz eta doan Mikelasagasti auditorioan. Lehenengoa gaur izango da, hilak 24, 22:00etan, eta *Salda badago* ikusi ahal izango da.

Ezker abertzalearen batzarra bihar, 11:00etan

ANOETA › Ezker abertzaleak herri batzarra egingo du bihar, hilak 25, udal pleno aretoan. 11:00etan hasiko da bilera, eta herri guztia gonbidatu du ezker abertzaleak batzarrera.

TAO-ren inguruko herri batzarra, hilaren 28an

IBARRA › TAO sistemaren edo ordaindutako aparkalekuen inguruko herri batzarra hilaren 28an egingo dute Ibarra kultur etxean. Azaroaz geroztik, hamar herritarrez osaturiko lantaldea proposamen bat zehazten aritu da gaiaren inguruan. 19:00etan hasiko den batzar irekin honetan, proposamen hau aurkeztuko dute herritarren aurrean. Ibartar guztiak deitu dituzte batzarrera, gaiaren inguruko erabakietan parte hartzea bultzatzeko.

Uholdeetako kalte ordainak eskatzeko epea

Gipuzkoako Foru Aldundiak hilabeteke epea emango die kaltetuei, diru laguntza eskariak egiteko

Erredakzioa

2011ko azaroan, uholdeek kalte handiak eragin zituzten Tolosaldean. Gipuzkoako Foru Aldundiak datorren astean irekiko du

kaltetutakoei zuzendutako diru laguntzak eskatzeko epea. Foru Administrazio eta Funtzio Publiko diputatu Garbiñe Errekondok azaldu duenez, «Diputatuen Kontseiluak laguntza hauek arautzen dituzten bi Foru Dekretuak onartuko ditu eta, hurrengo egunean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu bezain laster, kaltetuek dirua eskatu ahal izango dute. Horretarako, hilabeteke epea izango dute».

Gipuzkoako Foru Aldundiak bi

laguntza ildo jarriko ditu abian. Batetik, 200.000 euro, nekazaritza arlokoak, eta bestetik, 1,5 milioi euro, kalte publikoetakoak.

Bi Foru Dekretu hauek kalteak jasan dituzten udaletako ordezkarietaz nahiz EHNE eta ENBA nekazal sindikatuei aurkeztuko dizkiete foru arduradunek. Horrela, Gipuzkoako Foru Aldundiak, uholdeak izan eta berehala, kalteak laguntzeko iragarritako konpromisoa betetzen duela azaldu dute diputaziotik. Era berean,

Espainiako Gobernuarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin harremanetan aritu dela azaldu dute, «hilabete hauetan instituzio hauek laguntzak bidera ditzaten. Oraindik, baina, bi erakunde hauen erabakien zain dago Gipuzkoako Foru Aldundia. Orain, Eusko Jaurlaritzaren eta Espainiako Gobernuaren txanda da». Uholdeek eragindako «kalte larrien» aurrean, ahalegina egitearen ardurak instituzio guztiena dela azaldu du Garbiñe Errekondok.

Irudia › Villabona



BI LEHEN POSTU, ETXERA

Denboraldia etxean hasi dute Danena Olaederrako pultsulariek, eta emaitza bikainekin, gainera. Bi mailatan nagusitu ziren; kadeteetan, Sofyam-ek irabazi zuen, eta promesetan, argazkian ageri den Asier Gallegok. Pultsulari guztiak zoriondu dituzte arduradunek. HITZA

Irudia › Villabona



FLEMINGOAK DANTZAN

Fleming ikastetxeko 4. 5. eta 6. mailako ikasleak Dantzaz konpainiak zuzendu duen ikastaroan egon dira. Maila bakoitzak koreografia bat ikasi zuen, ondoren ikaskideei erakusteko. Ikastetxetik azaldu dutenez, esperientzia «polita eta emankorra» izan da. HITZA



Tolosan etxe adosatua salgai: eguzkitsua, lau gela, bi bainugela, komuna, egongela-jangela handia, sukalde, bi autorentzako garajea, txokoa, jardina eta trastelekua.

Interesatuak, deitu
678 267657
telefono zenbakira.



Idoia Gobantes

- Elikagaien Zientzia eta Teknologian doktorea EHU unibertsitatean. Kolegiatu zenbakia: 2101
- Giza Elikadura eta Dietetikan diplomaturia.

ELIKADURA HEZKUNTZA ETA DIETETIKA AHOIKARITZA

- Elikagai ohiturak hobetzeko helburu, elikaduraren ikuspuntutik aholkatzea.
- Umeak, gazteak, helduak eta adinekoak, haurdun dauden emakumeak, edoskitzea, menopausia, pisuaren gainbegiratzea, kirolariak, dietoterapia (patologiak).

Hitzordua eskatzeko:

ZAINBERRI

Rondilla kalea, 6 • Tolosa • 943 65 21 86



Paulo Garaialde 1981. urtean, Alderdi Egunean. HITZA

Herritarren aitorpen bila

Alegiako Garaialdetarrentzat urtarrila urteko hilabeterik gogorrenetarikoa da; aita, Paulo, hil zuten urtarrilaren 2an

Triple A izan zen atentatuaren egilea, baina ez da hori oroimenean kolektiboan geratu dena

Rebeka Calvo Alegia

Alegiako Garaialdetarrek badute hogeita hamar urtetan kendu ezin izan duten arantza. Triple A taldeak aita, Paulo Garaialde, hil zuen 1982an, eta ordutik, aitaren hutsunearekin batera, begirune eza jasan behar izan dute. HITZA Paulo Garaialderen zazpi seme-alabetako bostekin bildu da, eta urte hauetan guztietan bizitako saminaren lekuko izan da. «Gure aita, biktima batek behar duen errespetu eta begirunea jaso beharrean, bazirudien borroera bera zela, eta askoren memorian nahasmen hori gelditu da», diote.

Aita, Paulo, Triple A-k hil zuten, HITZA hori baieztatzen duen hainbat frogaz bildu ditu, baina badirudi oroimen kolektiboan ez dela hori geratu.

Gertakariak

1982ko urtarrilaren 2a. Berastegin, Plazaola trenbidearen inguruan, basozain batek Paulo Garaialde alegitarraren hilotza aurkitu zuen. Aurrean bi tiro zituen, eta goizean goiz aurkitu zuten. Familiarentzat itoaldia ordu batzuk lehenago hasi zen ordea eta oraindik ez da amaitu.

Paulo Garaialde taxista zen, eta urtarrilaren 1tik 2rako gauean hil zuten, 60 urte bete zituen egunean, hain justu. Emaztea, eta zazpi seme-alaba utzi zituen, eta guztiek argi dute «hilketa politikoa» izan zela.

Hilketa nork burutu zuen, ordea?

Nahasmena horretan datza, eta nahasmen hori da, hain zuzen ere, familiaren mina areagotu duena. Izan ere, Paulo Garaialderi 1972an lehegailu bat jarri zioten. Autoa lehertu zioten, baina bera onik atera zen. Lehegailua ETAK jarri zion, salatario zela zabaldu zen eta horregatik izan omen zen ekintzaren jopuntua.

Ez dago, antza, gertakari hura

baieztatzen duen idatzirik. ETAK ez zuen agiririk kaleratu lehegailua jarri zuela aitortuz, ez eta zergatik egin zuen ere. Baina senitartekoez nolabaiteko oharra jaso zuten ustezko etakide baten ahotik, eta ETAK burutu zuela baieztatu ahal izan zuten, nahiz eta leherketa hanka sartzea izan zela esan zien.

Beharbada gertakari honek sortu du ondorengo urteetan iraun duen nahasmena. ETAK jarri zion lehegailu hura, eta badi-rudijendearen irudimenean horixe geratu dela, hau da, Paulo Garaialdek jasandako bigarren atentatu ere ETAK burututakoa

ETAK ez du inoiz, Paulo Garaialde alegitarraren hilketa bere gain hartu

dela. Baina datuak argi uzten dute ezetz; Paulo Garaialde Triple A-k hil zuten.

Urtarrilaren 1etik 2rako gauean izan zen gertakaria. 1982. urtea zen, garai ilunak, politikoki gorabehera handikoak. Batallón Vasco-Español eta Triple A taldeen atentatu urteak ziren.

30 urte atzera

1982. urteko urtarrilaren 3ko egunkari gehienek Paulo Garaialderen hilketarekin ireki zituzten. «Taxista gipuzkoarra, urte berriko Euzkadiko lehen hildakoa» zela zioen esaterako, *Deia* egunkariak, eta *El Paisek* ere «Urtea indarkeriarekin hasi da Euskadin» argitaratu zuen. Egunkari gehienek Garaialdek bederatzita urte lehenago jasandako leherketaekin lotu zuten gertakaria.

ETAK ez du inoiz gertakaria bere gain hartu, are gehiago, *Egin* egunkariak 1982. urteko ekainaren 28an datatutako erakundearen agiria kaleratu zuen (4. irudia), eta bertan, besteak beste,

hauxe zioen: «ETA ez da Euskadin (sic.) gertatzen den guztiaren egilea (...) ETAK ez ditu egin, ezta aldarrikatu ere, hildakoak eragin dituen zenbait atentatu, esaterako Alegiako Pablo Garayalde Jau-reguizabal taxistarena (...)».

Komunikabideek ordea, atentatua «seguruenik» ETARENA zela zioten. Komunikabide batzuk, hala ere, urrutiago joan ziren eta *Diario 16* egunkariak, esaterako, Paulo Garaialde «poliziarren isilmandataria» zela argitaratu zuen, ekintza ETAK 1972an egingo zirela erabazten zela.

Deia egunkariak, bere aldetik, urtarrilaren 4an bere burua Tripe A taldeko kideztat jo zuen persona baten deia jaso zuen (Lehen irudia). Triple A-k ekintza bere gain hartu zuen dei horretan, baina Garaialde ez zutela hila esan zuen, berez, objektiboa Alegiako beste taxista bat omen zuten. Baina egia da *Deia* egunkariak urtarrilaren 7an Triple A-ren gutun bat jaso zuela, eta bertan hilketarekin zerkusirik ez zuela ziotela. Aipatu behar da, era berean, Txalaparta argitale-

raialderen hilketa ere aipatzen zuten, bere gain hartuz (2. irudia).

Triple A

Bildutako datuak ikusita argi ikusi daiteke Triple A-k hartu zuela bere gain alegitararen hilketa, nahiz eta mezu kontrajarririk helarazi zenbait unetan. Borroka Antiterroristarako Bateria Agintaritzak (Mando Unido para la Lucha Antiterrorista -MULA-) ere ETA (m) izan ez zela erabat baieztatzen ezin bazuten ere, gertakariaren zenbait ezaugarriak Tripe A izan zela pentsatzera eraman zituela aipatu zuen.

Urteurrena

Pasa den urtarrilaren 2an bete ziren hogeita hamar urte Paulo Garaialde hil zutela, eta Eusko Jaurlaritzak osatutako Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak osatutako Talde Inkontrolatuek, eskuin muturreko taldeek eta GAL taldeak eragindako terrorismoaren biktimei buruzko txostenean onartuta badago ere, eta agiri ofizialetan Tri-

Komando Autonomo Antikapitalistek ere hilketan zerkusirik ez zutela izan esan zuten

txeak kaleratutako *Euskadi Eta Askatasuna* bildumaren seigarren alean, 1981. urtetik 1984. urterako ekintzak biltzen dituen, Garaialderen heriotzaren berri ematen duela, eta hilketa Triple A-k egin duela jartzen duela *Deia* egunkarira egindako deia aipatu.

Diario Vasco egunkariak beste-lako daturik ere kaleratu zuen, izan ere, Batallón Vasco-Español delakoak dei bat egin zuen aipatu egunkarira Triple A 1980. urtetik desagertuta zegoela esanaz, eta beraz, hilketa ETA edo KAAK egin zutela esan zuen.

Polizia iturriak

Nahasmen handia egon zen 80ko hamarkadako egun horietan; komunikabideek informazio kontrajarriak argitaratzen zituzten, eta askotan, polizia iturriak aipatuta, ETA eta bere ingurua egiten zituzten errudun.

Zentzu honetan, *Egin* egunkariak, urtarrilaren 7ko alean, Komando Autonomo Antikapitalistek igorritako oharraren berri eman zuen.

Albistean Komando Autonomo Antikapitalistak Garaialderen erailketan ez zuela zerkusirik izan zioen (3. irudia); «poliziek esandakoa euskal langilegoaren zatirik borrokalari eta herrikoienaren kontrako in-totoxikazio kanpainaren barruan kokatu behar da».

Triple A-k *Deia* egunkarira ere bidali zuen 1976. urtean hasi eta 1982. urterarteko ekintzen zerrenda, eta horretan Paulo Ga-

Tripe A taldeak 'Deia' egunkarira deitu zuen eta ekintza erreibindikatu

pe A taldeak erail zuela agertzen bada ere, beraien aitak bestelako begirunea merezi duela argitu dute Garaialdetarrek, «herri-tarren».

Espainiako Barne Arazoetako Ministerioak familiari, emazte eta seme-alabei, kalte ordaina ematea onartu zuen «seguruenik Tripe A talde terroristak burututako atentatua» izan zelako (5. eta 6. irudiak).

Eta Tolosako instrukzio epaitegiak bere aldetik, jardueren behin-behineko artxibatzea agindu zuen hilketa gertatu eta hila-betera, «ez direlako ekintzaren egilea edo egileak topatu» (7. irudia).


↓ Kronologia

1982KO URTARRILAREN 1ETIK 2RAKO GAUA

- **22:30ak pasata.** Paulo Garaialdek etxetik atera zen familiarekin afuldu eta gero.
- **23:45ak inguruan.** Paulo Garaialderen anaia, koinatak eta beste taxista batek taxi geltokirik iruten ikusi zuten. Autoan ez zihon beste inor. Beste taxista batek esandakoaren arabera, baliteke telefonoz zerbitzuren bat hartu izana.
- **Urtarrilak 2an, goizaldean.** Basozain batek Berastegitik bost bat kilometro-ra topatu zuen Garaialderen hilotza, Plazaolako trenbide zaharrean.



Tripe A-k *Deia*ra deitu izana erakusten duen albiste.



Tripe A-k 1976. urtetik egindako ekintzak onartzen dituen albiste.




KAA-k Garaialde hil ez zuela dioen albiste.



Hil zuteneko tokian sendiak jarritako oroitarria.




ETAK 1982ko ekainaren 28an datatutako agiria, non, Garaialderen hilketa ez zuela egin esaten duen. HITZA



PNV-ek hilketa ikusi zuten albiste.



PNV-ek hilketa ikusi zuten albiste.



PNV-ek hilketa ikusi zuten albiste.



11°
7°

GOIZA	LAINTUTA
ARRATSALDEA	LAINTUTA
BEROENA	10°
HOTZENA	8°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Alegia, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Herrialde, Irura, Larraul, Leitza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeako, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Irudia ◊ Amezketeta-Asteasu



ESKOLETAKO INAUTERIEK EMANDAKOA

Pasa dira inauteriak eta orain egunerokotasunera itzultzeko garaia da. Tolosaldeko eskoletan ere ospatu dituzte jairik zoroenak, eta era askotako mozo-roak egin dituzte; sorginak, pilazoak, animalia ugari... Lehen irudian Amezketetako eskolako LH1 mailako haurrak ikusi daitezke sevillarrez, eta bigarrenean, Asteasuko gazteak ageri dira sorginez jantzita. HITZA

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Olarreaga, I.
Korreo kalea, 2.
Telefonoa:
943 67 01 28.
■ **Leitza.** Plaza, M. T.
Elbarren, 36.
Telefonoa:
112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak



Zorionak!
Amalur Beloki Tobar. Atzo 7 urte.
Garazi, lehengusuen eta familiaren partetik.



Zorionak Mikel eta Josune!
Astelenitan etorri zaigu, gure biziak poztera. Anartz, ongi etorri! Aittona Julian eta amona Maria Jesus.

AGURRAK
943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

●●●● **agurrak**



harpidedun izateak badu saria

irabazleak

1 Zabala Sagardotegia

Bi lagunentzako sagardotegi menua

Garagartza baserria
Aduna
Tel.: 943-69 07 74
www.rzabala.com

• **Margari Etxetxikia (Leitza)**



2 Sarasola Sagardotegia

Bi lagunentzako bazkaria

Asteasu • Tel.: 943-69 02 83

• **Bixente Galarza (Amezketeta)**



3 Isastegi Sagardotegia

Bi lagunentzako sagardotegi menua

Aldaba Txiki, 15 • Tolosa
Tel.: 943-65 29 64
www.isastegi.com

• **Izaskun Iraola (Bidegoian)**



4 Donostiako Aquariuma

Bi lagunentzako bina sarrera

www.aquariumss.com

• **Sebas Balerdi (Larraul)**
• **Maider Garaikoetxea (Tolosa)**



Saridunek eskaera egiteko hilabeteko epea dute.